



Arartekoaren 2018R-1428-15 Ebazpena, 2018ko maitzaren 15ekoa. Horren bidez, Lan eta Gizarte Politiketako Sailari gomendatzen zaio berriker dezala nahiko arau-babesik ez izategatik diru-kopuru jakin bat itzuli beharri buruzko adierazpena, ez baitago egiaztaturik bidegabe jaso zirela prestazio ekonomikoak.

Aurrekariak

1. (...)k kexa aurkeztu dio Arartekoari, diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitza prestazio osagarriaren bidegabeko prestazioen gaineko erreklamazioa egiteko xede duena.

Aipatu duenez, 9.891,19 € nahitaez itzuli beharra adierazi du Lanbidek, 2015eko urriaren 15eko ebazpenaren bidez.

Lanbidek, aurretik 2015eko otsailaren 21eko ebazpenaren bidez, diru-sarrerak bermatzeko errentaren prestazioa eta etxebizitzarako prestazio osagarria eskuratzeko eskubidea etetea erabakia zuen.

Hona hemen prestazioak eteteko erabakia hartzeko zioak: eskubide ekonomikoa ez baliatzea, zehazki, dibortzioaren epaiaren ondoriozko mantenu eskubidea, eta lan-eskatzailer gisa inskribatuta ez egotea 2014ko irailaren 16an.

Lanbidek 2014ko abenduan jakinarazi zion eskubide ekonomikoak nahitaez baliatu beharra dagoela, entzunaldi-izapidetaren bidez.

2014ko abenduaren 22an, alokairuko gastuei buruzko agiriak aurkeztu zituen idazkiarekin batera Barakaldoko Beurkoko Lanbideren bulegoan (erregistro zk.: 2015/19119). Halaber, 2015eko urtarrilaren 22ko idazkiarekin batera (erregistro zk.: 2015/38468), doako justiziarako eskaera aurkeztu zuen ofiziozko abokatuia izendatzeko, dibortzioa eta gurasoen eta seme-alaben inguruko neurriak erabaki zituen epailearen epaia betearazte aldera.

Otsailaren 17an, prestazioak berriz jasotzen hasteko eskatu zuen Barakaldoko Beurkoko Lanbideren bulegoan.

Hilabete etenda izan ondoren, prestazioak ordaintzen hasi zen berriz ere Lanbide, baina diru-sarrerak bermatzeko errentagatik eta etxebizitzarako prestazio osagarriagatik jasotako prestazioen erreklamazioa egin zuen, 2014ko apiriletik 2015eko urtarrilera artekoa hain zuzen (9.891,19 € diru-sarrerak bermatzeko errentarako eta 2.250 € etxebizitzarako prestazio osagarriarako), hots, hitzarmen arau-emailea sinatu zenetik, Barakaldoko Familiaren 5 zk.ko 1. Instantziako Epaitegiak 2014ko maiatzaren 14an dibortzio epaia eman baino hilabete lehenago (epai zk.: 255/2014).





2. Arartekoak, kexa izapidera onartu ondoren, gertaera horiei buruzko informazioa eskatu zion 2015eko azaroaren 10ean Lan eta Gizarte Politiketako Sailari, eta alde zuzenetik, zenbait gogoeta helarazi zituen, baina berriz ere ez aipatzearen, ondoren emango dira gogoeta horiek.

Laguntzeko eskaerari erantzunik eman ez zitzaienez gero, Arartekoak beste errekerimendu bat igorri zuen 2016ko urtarrilaren 5ean.

Lanbidek, zuzendari nagusiaren 2017ko ekainaren 20ko txostenaren bidez, hots, urtebete eta erdi geroago, erantzuna eman zion gure erakundeari, eta jasotzaileak araua bete ez zuela berresteko: *“ez baitu baliatu seme-alabentzako mantenu-pentsioa, 2014ko apirilean aldeek sinatutako hitzarmen arauemailean xedatutakoa”*.

Lanbidek gogoeta hauek gehitu ditu:

“Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legearen 28.1.h artikulua xedatzen du diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzeko eskubidea azkendu egingo dela lege horren 19.1.b artikuluan aurreikusitako betebeharrak betetzen ez bada, eta titularraren betebeharrak jasotzen dituen artikulua horrek honela dio: Titularrari edo bizikidetzak unitateko edozein kideri legokiokeen eskubide edo prestazio ekonomiko oro baliatzea, prestazioak irauten duen aldi osoan.

Prestazioa kausa horrengatik azkentzen bada, titularrak ezin izango du berriz ere diru-sarrerak bermatzeko errenta eskatu, edozein izanik ere modalitatea, eskubidea azkendu den unetik urtebete igaro arte. Hortaz, dirua itzultzeko prozedura ireki zen, hain zuzen, jaso behar ez zituen eta jasotako zenbatekoak itzultzeko.

Maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 9.8 artikulua dio, halaber, 18/2008 Legearen 61.3 artikuluekin bat, betebeharrak ez betetzeak prestazioa jasotzeko eskubidea aitortzeko eskatzen diren baldintzetako bat galtzea eragin dezakeela, prestazioa jasotzeko eskaera artxibatzea eragiten badu.

Horrenbestez, legegileak argi eta garbi zehazten du zein diren eskubide ekonomikoak ez baliatzeak eragin diezazkiokeen ondorioak diru-sarrerak bermatzeko errentaren prestazioa eskatzen duenari zein onuradun denari, ezinbesteko baldintza baita, hartzailea izan ahal izateko.

Nolanahi ere, Lanbidek halako espedienteak izapidetzen dituenean, kontuan hartzen ditu erreklamaziogilearen egoerak, eta aldian-aldian berrikuspenak egiten ditu egokiak iruditzen zaizkion neurriak hartzeko, indarrean dagoen araudiaren arabera.





Izapide horretan, diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitzako gastuetarako prestazio osagarriaren prestazioa aldi baterako eteteko ebazpena eman zen, kasuan kasuko bulegoak berrikuspena egin eta gero, eta berrikuspenaren espedientea egin zen (2014/REV/057477). Prestazioa etetearen arrazoia, kasu honetan, hau da: ez baliatzea eskubide ekonomikoak, eta, baliatuz gero, prestazioaren zenbatekoa aldatuko litzateke. Ebazpena 2015eko otsailaren 23koa da.

Espedientea izapidetzean ondorioztatu da 2014ko apirilean aldeek adostutako hitzarmen arauemailean zehaztu zela seme-alaben aldeko mantenu-prestazioaren zenbatekoa, eta prestazio hori ez zuela erreklamatu diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitzako gastuetarako prestazio osagarriaren hartzaileak.

Horren haritik, itzultzeko prozedura hastea eragin zuten kausetako bat hau izan zen: "Ez baliatzea mantenu-pentsioagatik jasotakoa, 2014ka apirilean sinatutako hitzarmen arauemailea, 2014ko abenduan jakinarazitako eskubideaz baliatzeko entzuteko izapidea, eta ez da jardun judizialik gauzatu eskubide hori betetzeko 2015eko urtarrilaren 20a bitartean".

Aurreko hori kontuan hartuta, Lanbide - Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiak Ebazpena eman zuen 2015eko urriaren 15ean, eta haren bidez ezarri zitzaion (...) andreari 9.891,19 euroko zenbatekoa itzultzeko betebeharra, hau da, diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitzako gastuetarako prestazio osagarriaren kontzeptupean jaso behar ez zuen zenbatekoa. Kopuru hori 2014ko apiriletik 2015eko urtarrilera bitarteko epeari dagokio.

Azkenik, Lanbidek honako hau adierazten du: "Azkenik, Arartekok zioen azalpenean adierazitako zehapen-prozedura, abenduaren 23ko 18/2008 Legearen VII. tituluaren xedatutakoa, erregelamendu bidez garatu behar da, aipatutako Legearen 108. artikulua araututakoaren arabera. Honela dio artikulua, hitzez hitz: "Zehapen-prozedura erregelamendu bidez finkatuko da, Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioen zigortzeko ahalmenari buruzko otsailaren 20ko 2/1998 Legearen ezarritako printzipioen arabera".

Horrenbestez, gerora emango den Erregelamenduak, Xedapen Orokorra egiteko Prozedurari buruzko abenduaren 22ko 8/2003 Legearen xedatutakoa betez izapidetuko denak, egun dagoen hutsuneari egingo dio aurre. Kontuan hartu dugu, eta erakunde hori ere jakitun da, Herri Administrazioen Zigortzeko Ahalmenari buruzko otsailaren 20ko 2/1998 Legearen bideratu baino ez dutela egiten, bai diru-sarrerak bermatzeko errentari buruzko maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuak, bai etxebizitzako gastuetarako prestazio osagarriari buruzko urtarrilaren 12ko 2/2010 Dekretuak".

Erreklamaziogileak erakunde honi jakinarazi dionez, Lanbide hilero 30 euroko kuota deskontatzen ari zaio zor duen diru-kopuruari aurre egiteko.





Gogoetak

1. Espediente honetan, 9.891,19 euroko diru-kopurua nahitaez itzuli beharra ezarri duen ebazpena zuzenbideari lotzen zaion aztertuko da, 2014ko urtarrileko apiriletik 2015eko urtarrilera jasoko prestazioei dagokiena.

Lanbideren ustez, erreklamaziogileak ez du baliatu mantenu-pentsioaren kobrantza eta, horregatik, galdu egin du eskubide ekonomiko oro nahitaez baliatu beharra ezarri duen maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 9.8. artikuluan xedaturiko beharkizuna. Igorritako txostenean azaltzen duenez, diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzeko eskubidea etetea izan da hartutako neurria, hilabeteko iraupena izan duena, baita erreklamazioa ere, hain zuzen ere hitzarmen arau-emailea sinatu zenetik demanda judiziala aurkezteko doako justiziarako eskaera egin zuen arte igarotako aldian jaso zituen prestazioei dagokien diru-kopuruei buruzkoa. Lanbide 30 € deskontatzen ari zaio hilean; gutxieneko deskontua da, erakunde honen oniritzia duena. Alabaina, jasotako prestazioen erreklamazioa Zuzenbideari lotzen zaion aztertzea da analisi honen xedea.

2. Kexa aurkeztu zuenak ez zekien epaile bidez erreklamatu behar zuenik hitzarmen arau-emailea betearaztea. Berak dioenez, betebeharrak hori ez zuen jakinarazi Lanbideren bulegoak. Arartekoaren aburuz, eskubide ekonomikoak nahitaez baliatu beharra araudian ezarrita egon arren, egoki azaldu beharko litzateke betebeharrak horretatik hauxe ondorioztatzea: demanda judiziala berehala aurkeztu behar dela ordaindu ezean, emandako prestazioak itzuli behar ez izateko. Batez ere kontuan hartzen baditugu prestazio horiek jasotzen dituzten pertsonen ezaugarriak; izan ere, gizarteak baztertuta daude, arlo askotako gabeziak dituztelako, hezkuntzakoak eta gizartekoak esaterako.
3. Arartekoaren analisisan eginiko intereseko aipamen bat ekartzea komeni da: epailearen epaiaren ondoriozko betearazpen-ekintza ez zegoen azkenduta.

Auzipetze Zibilaren Legearen (AZL) 518. artikuluan, epailearen epaian edo ebazpen arbitralean edo bitartekaritza-akordioan oinarrituriko betearazpen-ekintzaren azkentzea arautu da:

“La acción ejecutiva fundada en sentencia, en resolución del tribunal o del secretario judicial que apruebe una transacción judicial o un acuerdo alcanzado en el proceso, en resolución arbitral o en acuerdo de mediación caducará si no se interpone la correspondiente demanda ejecutiva dentro de los cinco años siguientes a la firmeza de la sentencia o resolución”.

Hitzarmen arau-emailea 2014ko apirilean sinatu zen; 2014ko apiriletik 2015eko urtarrilera artean emandako prestazioak erreklamatzeko Lanbidek, hau da, Barakaldoko Familiaren 5 zk.ko 1. Instantziako Epaitegiak 2014ko maiatzaren 14an dibortzio epaia eman baino hilabete lehenago (epai zk.: 255/2014).





Erreklamaziogileak mantenu-pentsioa ez ordaintzearen ziozko epaia betearazteko eskatu zuen aipaturiko behar horren berri 2015eko urtarrilean izan zuzenean. Egun horretan baliatu zuen eskubide ekonomikoa, doako justiziaren onura emateko eskatu zuenean hain zuzen. Demanda betearazlea ez zegoen azkenduta epaia irmo bihurtu ondorengo bost urte igaro baino lehen sustatu zelako eta, beraz, oso-osorik eusten zion eskubide ekonomikoa jasotzeko eskubideari.

Horren guztiaren ondorioz, Arartekoaren iritziz, erreklamaziogileak ez du hautsi eskubide ekonomikoa baliatu beharra eta ez du galdu prestazioen titularra izateko beharkizuna. Ildo horretan, Gasteizko 1 zk.ko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegiaren 2016ko ekainaren 16ko 129/16 zk.ko Epaia aipatzen da, non Arartekoaren¹ gomendioa jasotzen den, eta haxe aipatzen da FJ5: *"...que el propio ejercicio en plazo de las acciones de reclamación tampoco garantiza una mayor eficacia de su reclamación, como pone de manifiesto, dada la situación objetiva de juzgados y tribunales, la doctrina del TC sobre dilaciones indebidas al amparo del artículo 24 de la CE (vide ad exempla la Sentencia 77/2016, de 25 de abril de 2016 (BOE núm. 131, de 31 de mayo de 2016))".*

Nolanahi ere, neurritz kanpokoa eta haien intereserako kaltegarria da 9.891,19 euroko diru-kopurua nahitaez itzuli beharra erakutsitako jokabidea aintzakotzat hartuz gero. Erreklamaziogileak bete egingo lituzke diru-sarrerak bermatzeko errenta/etxebizitzarako prestazio osagarria prestazioen titularra izateko beharkizunak. Diru-kopuru horretan, hilero jasotzen zituen benetako diru-sarrerak izan ziren kontuan. Halaber, eskubide ekonomiko baten titularra zen, mantenu-pentsioa. Lanbidek egiaztatu zuenez, ez zen betearazi diru-kopuru hori ez ordaintzearen ziozko egintza judiziala eta, beraz, diru-sarrerak bermatzeko errenta/etxebizitzarako prestazio osagarria prestazioa hilabetez jasotzeko eskubidea etetea erabaki zuen. Epaia betearazpena eskatzeko izapideak abiarazi zituela egiaztatu ondoren, berriz ere ordaintzen hastea erabaki zuen. Prestazioak erreklamatzeko prozedura hasteak, Arartekoaren iritziz, ez du arau-babesik.

Erakunde honen iritziz, araudian (maiatzaren 25eko 147/2010 eta urtarrilaren 12ko 2/2010 dekretuak) ezarritakoek, hain zuzen diru-sarrerak bermatzeko errenta/etxebizitzarako prestazio osagarria prestazioen onuradunek dituzten betebeharrei eta beharkizun horiek galtzeari buruzkoek, hainbat alditan aipatu denez eta Arartekoaren txostenean (*Diagnostiko-txostena, Lanbidek diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren prestazioak hobeto kudeatzeko proposamenak jasotzen dituena, 2017*) aztergai izan denez, gabezia garrantzitsuak dituzte hala nola proportzionaltasun printzipioa kontuan hartzen ez izateari dagokion muga. Arartekoak behin eta

¹ Arartekoaren 2015eko azaroaren 2ko Ebazpena. Horren bidez, diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren azkentzea berrikustea gomendatzen da (<http://www.ararteko.eus> helbidean eskuragarri)





berriz aipatu du, besteak beste, garrantzizkoa dela zigor-prozedura garatzea. Prestazioen titularrak izateko beharkizunak bete arren betebeharrak bat betetzen ez denean, egokiagoa izango litzateke zigor-prozedurara jotzea, eta eginiko ez-betetzerako (arau-haustea) egokia den zigorra xedatu beharko luke prozedura horrek. Zigor-prozeduran (Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legearen 108. art.) ezarrita dagoenez, aplikatu beharreko zigorrak proportzio egokia izan behar du arau-haustea dakarren gertaeraren larritasunarekin, eta zigorra mailakatzeko honako irizpide hauek izan beharko liriteke kontuan: intentzionalitatea edo errepikatzea, eragindako kalteen izaera edo berrerortzea. Prestazioa aldi batez eten eta ez-betetzea izan deneko jokabidea hasi zenetik jasotako prestazioak erreklamatzeko kaltegarriena da kasu askotan.

Lanbidek ez du araubide hori garatu eta, une honetan, lege aldaketa osoa dago egiteke, baina erakunde honek berriz ere jakinarazi behar du urteotan eginiko gogoeta. Egungo araudiak eta Lanbide horri buruz egiten ari den interpretazioak ez dakarte jokabide askorekiko neurriko erantzuna, espediente honen xedea den neurriarekin gertatzen den bezala.

4. Horrez gain, ez daude argituta prestazioak itzultzeko erreklamazioa egiteko kasuak. Maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 56. artikuluan, kasu batean soilik dago ezarrita itzuli beharra: diru-sarrerak bermatzeko errenta bidegabe jasotzen denean. Lanbidek uste duenez, prestazioak etetea erabakitzen denean, berehala dago egiaztatuta diru-sarrerak bermatzeko errenta bidegabe jaso dela edo, hala denean, etxebizitzarako prestazio osagarria (2/2010 Dekretuaren 34. art.), baina interpretazio hori, erakunde honen aburuz, ez dago hain argi, eta gizarte zailtasunak dituzten pertsonentzako oso kaltegarriak diren egoerak dakartza. Hala, gizarteratzeko haien ibilbiderako eragozpenak sorrarazten dira, gainera zor bati aurre egin behar diotelako, zenbait kasutan oso zor handia. Horrexegatik, erakunde honek uste du jasotako prestazioak itzuli beharra ezarri duen araudian argi eta garbi xedatu beharko liritekeela itzuli beharra deklaratzeko zioak. 2017ko Txosten-diagnostikoan, Lanbidek araudi horretan ezarritako araua aplikatzeari buruzko analisia egin zen, eta honako gomendio hau helarazi zen:

“6.3. Bidegabeki jasotako prestazioak itzultzea

Prestazioak itzultzea erabakitzen duen prozeduran, Arartekoaren ustez, gabeziak ere badaude. Kasu honetan, gabezi horiek zorraren jatorriaren eta bidegabeki jasotako prestazioak erreklamatzeko aintzat hartutako kontzeptuen informazio urriari eragiten diote. Horien barruan sar daitezke betekizunen galera, egoeren aldaketa edo betebeharrak ez betetzea. Azkenengo kasu horretan, mugatzeko ondorio bikoitza sor daiteke jokabide berari dagokionez. Hau da, izan daiteke epe batez prestazioaren ordainketa etetea eta, gainera, betebeharra urratu zenetik ez-betetze hori hauteman eta etenaldia ezarri bitartean jasotako zenbatekoa eskatzea. Hala, jotzen da batzuetan hori neurritz kanpoko del.





45. Proposamen hauen egokitasuna aztertzea:

- Zorraren jatorriaren informazioa zehaztea.*
- Ordaindutako prestazioak erreklama daitezkeen kasuak argitzea.*
- Segurtasun juridikoko printzipioa, arbitraltasun debekua eta proportzionaltasun-judizioa kontuan hartzea”.*

Arartekoaren asmoa da aurreko gomendioa araudiaren hurrengo erreforman aintzakotzat hartzea.

5. Arartekoaren aburuz, erreklamaziogileak bete egin du maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 9.8. artikuluan ezarritako beharkizuna, eta ez du diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzeko eskubidea azkentzeko kausarik, abenduaren 23ko 18/2008 Legearen 9.1.b) artikuluan ezarria, ezta etxebizitzarako prestazio osagarriari dagokiona ere, zeren eta haren titulartasunpeko eskubide ekonomikoa baliatu baitu, horretarako betebeharra zuela jakin zuenean. Ararteko hau ez dator bat Lanbidek egin duen interpretazioarekin. Izan ere, Lanbideren ustez, betearazpenerako demanda egin zuen mantenu-pentsioa ordaindu ez zela egiaztatu eta zenbait hilabetetara, eta horrek berekin dakar diru-sarrerak bermatzeko errenta/etxebizitzarako prestazio osagarria prestazioengatik jasotako diru-kopuruak itzuli beharra. Gogorarazi beharra dago erreklamaziogileak bete egiten zituela prestazioen hartzailea izateko beharkizunak, ez zuelako nahikoa baliabide beharrik oinarrizkoenei aurre egiteko eta gizarte bazterketa jasateko arriskuan zegoelako. Hori dela-eta, hilabetera berriz ere ordaintzen hasi zitzaizkion diru-sarrerak bermatzeko errenta/etxebizitzarako prestazio osagarria prestazioak. Arartekoren ustez, Lanbideren errekerimenduaren ondoren egintza judiziala betearazteagatik jasotako prestazioak itzultzeak ez du arau-babesik, zeren eta ez baita egiaztatu bidegabe jasotako prestaziorik, diru-sarrerak bermatzeko errentari buruzko maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 56. artikuluan ezarrita dagoen bezala: *“Aldatzeko, eteteko edo azkentzeko prozedura baten ondorioz edo beste edozein zirkunstantziagatik diru-sarrerak bermatzeko errenta bidegabe jaso dela egiaztatzen bada, titularrak jaso behar ez zirela jasotako prestazioak edo prestazioarengatik jaso behar ez zela jasotako zenbatekoa itzuli behar dituela ezarriko du foru-aldundi eskudunak”.*

Horregatik guztiagatik, gomendio hau egiten dugu, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera.

GOMENDIOA

9.891,19 € diru-kopurua itzuli beharra deklaratu duen ebazpena berrikustea gomendatzen du Arartekoak, ez duelako nahikoa arau-babesik, ez baita egiaztatu prestazioak bidegabe jaso izana.

